

Xabier Gurrutxaga

ANALISTA POLITIKOA ETA ABOKATUA

Idia eta harria

batasunak Euskal Herriko esparru berrirako proposamena aurkeztu zigun Iruñeko Anaitasuna kiroldegian; martxoaren 3an. Eduki eta beste kontu batzuetan sartu aurretik, komeni da “Euskal Herri berria” proposamenak ezker abertzale ofizialeko zuzendaritza guztien babesa eta onespena duen ala ez jakitea. Barajasko atentatuaren ondoren, proposamen honek eta beste edozeinek ez dute ibilbide politikorik izanen, baldin eta ez bada garbi uzten proposamenaren helburua gatazka politikoa bideratzea dela, eta horretarako alde aurretik ETArek amaiera bermaturik behar duela egon, zuzenean erakundearen bidez edo zeharka Batasunaren eskutik. Ezker abertzale tradizionalarentzat harriztar handiegia da ETA. Lotura hori askatzen ez duen bitartean, zama handiegia izango du politikagintzan. Ez du harriztar hori zertan hautsi beharrik, probalekutik kanpo uztea aski du.

Ezker abertzaleak zinez nahi badu bere proposamena aintzat hartua izatea, ezinbesteko zaio behin betirako onartzea ETArek amaieraren truke ezin duela prezio politikorik eskatu. Garbi eduki behar du, gure kasuan, indarkeriaren amaiera normalizazio politikoaren aurretik beharko duela etorri eta ez alderantziz.

Ikuspuntu politiko eta juridikotik begiraturik, proposamenean lurraldetasun printzipioaren lehentasunari buruzko ukazio nabarmen



ALBERTO ELOSEGI



Ongi etorria bedi ezker abertzalearen ‘errealismo berria’. Besteok, botoak egin ditzagun errealismo zipriztin hauek ezker abertzale osoa busti dezaten



bat dago. Proposamenean, Euskal Herriaren izaera politikoa bakarria aitortzen da, baina juridikoki herri politiko bakar hori bitan edota hiru partetan antolatua gelditzeko aukera aurrakusten da herritarrek kontraktorik nahi ez badute behintzat. Hegoaldeari begiratuz, apustua lau lurraldetako autonomia aldeko izanik ere, Nafarroari eskubide osoa aitortzen zaio beste lurraldeekin batera egoteko edo, hala nahiko balute nafarrek, gaurko autonomian bakarrik jarraitzeko. Alde horretatik esan behar da proposamenak ohiko ezker abertzalearen proiektua demokratizatu egiten duela, izan ere, herritarren borondatean oinarritutako printzipioak lurraldetasunarenak baino balio handiagoa hartzen baitu. Anaitasunako proposamenaren bideragarritasun juridikoaz mintzatuko bagina, besterik gabe gai horrek Konstituzioaren xedapenetara garamatza eta konkretuki behin-behingoak laugarren xedapenera; bertan aurrakusten baita Nafarroak Euskadiko erkidegoarekin bat egiteko jarraitu beharreko bidea. Ez dezagun ahantzi juxtu xedapen hori dela UPNk orain betirako ezabatu nahi duena. Ongi etorria bedi ezker abertzalearen “errealismo berria”. Besteok, botoak egin ditzagun errealismo zipriztin hauek ezker abertzale osoa busti dezaten. Ia behingoz harriztarraren zamarik gabe ezker abertzaleko idia besteekin eta besteen aurka demalekuan lehitzeko gai den. ▢

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Dira. Gure lagun min batek kontatuak, orain

publikoak egin direnak. Victor Manuel “Gure aitona zulatzailea zen meategian...” kantatzen zuen –gaztelaraz, noski– asturiarra Madrilera joan zen fortuna bila, gazte. Euliak abaraskara nola, kantariak artistenera egin zuen arrakastaren gozoa xede. Nova Canco eta Ez dok Amairuren hastapenak. Gure lagunak esana zigun Victor Manuelek (PCEk eta PSOEek ezagutu dutena) Francori eгина ziola eresi bat enkarguz, Belter disketxe orojaleak publikatu ziona. Eta hala izaki, Spanish Bizarro bilatzaileak aurkitu du pitxia eta Interneteko gune batean eman, desa-

Aspaldiko kontuak

gerrarazteko saioei izkin eginez. Orain damutuarena eginez dabil bere itzalak egin agerikoa ezkutatzerik ez daukala. Gaztea omen zen eta ezjakina. Hori esan du. Guk ez genekiena, sinestarazi baitigu artista ezkertiarra zela, zulatzailearen biloba genuela, kantua behartsuen eta adimenaren alde emana zuela. Baina geroztik ere adierazi du boterearekiko zera hori, joera eskuzabal hori, agintarien beroan dantza egin gura hori. Oportunista izate hori. Arrakasta mota horren prezioa du orain gaztigitzen duena. Hau Churchillen esaera haren salbuespena da, honek alderantzizko bidea egin baitu. Oroz gain, bere alde besteentzat ari bailitzan. ▢